

## ELAren 2014ko Aberri Eguneko Adierazpena

1. *"Nazioa gara, erabakitzeko eskubidea dugu, herritarron garaia da"*; *Gure Esku Dago* ekimenak aukeratu duen Leitmotiv hirukoitz honek oihartzun berezia du bi hilabete eskas geratzen denean mobilizazio masiborako, Durango eta Iruñea batuko dituen giza-katea. Horregatik, laster izatekoa den ekitaldi hori gogoan, aurtengo Aberri Eguneko jai honetan berriro heltzen diogu munduko nazioen artean Euskal Herri aske bat izateko itxaropenari.
2. Sindikatu garen aldetik –krisia hasi zenetik zazpi urte igaro direnean– salatu beharrean gara duela hamarkada bat pentsaezina zen inboluzio sozial eta demokratiko bat bizitzen ari garela. Ekonomia eta finantzetako botereek sekulako zartada eman diete demokrazia batean eskubideen suntsipen sistematiko horri aurre egin beharko lioketen erakundeei. Gobernuak, alderdiek... banan-bana botere ekonomiko eta finantzarioen aginduei men egin diete, hauek doikuntza estrukturaleko politikak kupidagabe ezartzea berma dezaten; politika hauek birrindu egiten dituzte eskubide sozial eta laboralak, babes sozialeko sistemak eta zerbitzu publikoak, eta horrenbestez kapitala metatzeko aldi berri bat bideratzen dute. Horrela, lan mundua, gure erreferentziarik eta eginkizunik behinena, eta klase xeheen zoria oro har, zigor bereziki latza ari da pairatzen: langabezia, prekarietatea, soldata txarrak, pobrezia eta gero eta desberdintasun handiagoa hedatzea, guztiak ere politika horien ondorio logiko besterik ez dira; bestalde, kontu hau lehenago ere ezaguna zen, hamarkadatan aplikatu izan baitituzte politika horiek munduko beste leku batzutan erakunde berdinen aginduz (NMFak, orain Troikaren laguntzarekin); hain zuzen hauek berpizten ari dira orain Europa gero eta zaharrago, bidegabeago eta totalitarioago honetan.
3. PPren gobernuak jakitun denez inboluzio honek eztanda sozial bat ekar dezakeela, estatuan protestak kriminalizatzeko beste olde bat ari da gertatzen; honen adierazpenetako bat da Herritarren Segurtasun Legearen aurreproiektua. Errepresioaren bide hautatu dute. Protesta adierazpenak eragotzi edo ekiditeko egiten dira legeak, eta ekintza kolektiboa bultzatzen duten erakundeak finantzen bidetik itotzeko. Protestari ordena publiko arazo bat bailitzan ekin nahi diote.
4. Krisiari aurre egiteko modu bidegabe eta klasista hau nekez aterako litzateke aurrera bertoko gure elite politiko eta enpresarialen laguntzarik gabe. Azken aldiko egoerari begiratu gero, lankidetzaren adibide dugu Ekonomia Itunari buruz espainiar Gobernuak Eusko Jaurlaritzarekin eta EAJk, PPK eta Bilduk gobernatzen dituzten Foru Aldundiekin sinatu duen akordioa (zeinetan aurrekontu-diziplinari babesa ematen zaion), zerga-politikako akordioak nahiz aurrezki-kutxen bankarizazioa eta egin nahi duten Kutxabanken pribatizazioa. Honela bertoko eliteek gure herriari beharrezko dituen tresna politiko, ekonomiko eta finantzarioak kentzen dizkiote. Politikako erabakirik garrantzitsuenei buruz sindikatuak eta erakunde sozialei ez zaie kontsultarik

egiten. Hau indar politiko eta erakunde guztietan gertatzen da, kritika ororekiko intolerantzia bezala.

5. Kontuok ez dira inola ere ezinbestekoak edo inposatuak; aitzitik, tokiko eliteek klase xeheen interesen aurka hartutako erabakiak dira; erabaki hauen zergatia da bat datozela klase-interesetan. Eta hauei dagokienez, salatu beharrekoa da gure herriko komunikabide publikoetan –unean-uneko gobernuaren esanetara– alternatibak ezkutatu egiten direla; gizartearen aniztasuna adierazteko aukera galarazten dela, baita –manipulazio dosi handiak medio– kritika eta disidentzia estigmatizatu ere; gizartearen ezjakintasuna sustatzen dute horrela, berari dagozkion gaietan.
6. Horregatik, klase xeheentzako egoera hain txarra izanik, are garrantzitsuagoa da posizio politiko eta sozial argi bat hartu duten pertsona guztien ahalegin militantea: ez diote babesik emango gertatzen ari den lapurreta honi, zeinen emaitzak baitira aberastasuna banatzeko (soldatak) eta birbanatzeko (fiskalitatea, zerbitzuak eta prestazioak) mekanismo guztiak eta ondasun komunak hondatzea (pribatizazio prozesuak). Horien artean ELAek erresistentzia garai hauetan bere militanteen konpromisoa bereziki nabarmendu nahi du.
7. Gure herrian agenda neoliberalak ezartzen duten aliantza politikoek –liskar mediatikoak alde batera utzita– autogobernuaren inguruko debata ere baldintzatzen dute. Zehatzago, EAEko estatus politikoa berrikusteko Legebiltzarrean eratu den batzordea hankamotz sortu da, indar politiko nagusiak erabaki baitu, eztabaida hasi orduko, etorkizuneko estatusa gutxienik indar espainiar nagusietako batekin lortzen den akordioaren fruitu izango dela. Honi gaineratu behar zaio euskal nazionalismoaren zati batek egiten duen pedagogia negargarria, bereganatu egiten baititu argudio “konstituzionalistak”, esanaz autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeak zatikatzen dituela euskal herritarrak, benetan eskubide hori gauzatzea hautatu ezinak eragiten duenean proiektu politiko guztiak baldintza berdinetan lehiatzeko aukerarik ez izatea.
8. Sarri salatu izan dugu krisi ekonomikoaz baliatzen ari direla autogobernua murrizteko. Hala ari dira egiten politika ekonomikoaren oinarritzko esparruetan, esaterako inposatu egin baitituzte murrizpenak ezartzeko oinarri-legeak, edota aurrekontu-diziplina. Baina autogobernua ez dute bakarrik gai ekonomikoetan eragozten: adibidez, LOMCE gure hizkuntz- eta kultur-eskubideen aurkako eraso zuzena da, eta horretarako Espainiako gobernuak abusuz bereganatu du –are gehiago– enborreko ikasgaiei buruz erabakitzeko ahalmena. Gai hauetan hankasartzea dela uste dugu eskumenen inguruko gatazkak berriro –Auzitegi Konstituzionalean– judizializatzea, izan ere, 90eko hamarkadan bide hau baztertu egin baitzuen Eusko Jaurlaritzak hain zuzen irizita auzitegi hau alde batera lerratuta dagoen instantzia politikoa dela.
9. Espainiar nazionalismoarekiko abiapuntuko ituna –bilateralitasun ezaren bandera astintzen duen estatu baten aurrean– benetan amore emate politiko bat da: estatuarekin talka ez egiteko erabakia hartu da. Horregatik heldzen zaio debate honi duela bederatzita urteko beste hura –Ibarretxe plana zelakoaren inguruan– izan ez bailitzan. Hau ez da

memoria arazo bat, posizio politiko kontua baizik. Bere aldetik, Auzitegi Konstituzionalak, inolako zalantzarik gera ez dadin, “gauzak bere lekuan” kokatu ditu berriro, ebatzi baitu baliorik gabeko esalditzat jo behar dela honako pasarte hau: “Kataluniako herriak, legitimitate demokratiko arrazoiak medio, subjektu politiko eta juridiko subirano izaera du”. Hortaz, halako posizioak ikusita, batzorde horrek ez dauka ibilbiderik autodeterminazio eskubidearen aitortzari, burujabetzari nahiz bilateralitateari dagokionez. Gure iritziz, espainiar jarrera antidemokratikoak –zeina estatu-itun gisa PPK eta PSOEek bermatzen duten– behartu egiten gaitu autogobernuaz ere pentsamolde unilaterala izatera.

10. Halaber, Nafarroako auzi politikoaren mamia autogobernuaren inguruko eztabaida da, edo hobe esanda, eztabaida horrekiko ukapen egoskorra. Ustelkeria eta influentzia- trafikiko kasuen harira, zeinetan agerian geratu den botere ekonomikoaren eta gobernuaren arteko lotura estua, PSNk –zentsura mozio bat sartzeko aukerari ezetza emanek– berriro definitu du bere burua Nafarroa “amejoratu eta bereizi” horren oinarri gisa. 2007an bezalaxe, “Ferraz” erabiltzen da aitzakia gisa PSNk “erregimen forala” delakoa legitimatze aldera. Erregimenaren aitzindari guztien –UPN, PSN, PP, CEOE, UGT, CCOO, CEN, Opus...– ikurrak dira Espainia marka, euskal kutsuko guztiaren aurkako politika etnozida, eta nafar herritarren erabaki demokratikoa ez errespetatzeko posizioa, aspaldidanik datorrena. Klaseari dagokionez, erregimena sostengatzen dutenak bat datoz politika neoliberalarekin –edo babestu egiten dute, bederen–; bizikidetzak kontuan, berriz, euskal kutsuko guztiari ekiten diote, derrigorrezko asimilazio politika bidez.
11. Euskal Herriaren aitortza instituzionala lortzeko borroka funtsezko bektorea dugu Ipar Euskal Herrian duela gutxi izan den hauteskunde-prozesuan zer gertatu den ulertzeko. Abertzaleek bozen kuota gehitzea baino garrantzi handiagoa duen zerbait lortu dute, Iparraldeari adierazpide instituzionala ukatzen dion jakobinismoari jipoi ederra eman izana. Honetan zerikusia izan du abertzaleen aliantzekin egin den kudeaketa taktiko eta estrategikoak, zeinak hauteskundeetako aritmetikak islatzen duena baino askoz indar-erlazio hobea eman baitie. Gertatu denak Bateraren estrategia garailea mailaz maila ontzen ari dela adierazten du.
12. Bestalde, blokeatuta diraute normalizazio politikoarekin lotuta dauden gaiek. Beste behin, ELAk exijitzen du indargabetuta gera dadila PPK eta PSOEek egin zuten Itun Antiterrorista. *Patriot Act* espainolista hark babesa ematen die era guztietako abusu polizialei, guztiz politikoak diren auzibideei, erakunde sozialen jazarpenari (esaterako, Herrira), gizalegerik gabeko kartzela-politika bati, edota estatuak desarmatze prozesua arduraz gauzatzeko ukoari (kontu honek nazioarteko komunitatearen zati handi bat harri eta zur utzi du). PP, bere kide mediatiko eta judizialekin, normalizazio politikorako oztopo objektiboa da. Horregatik, eman beharreko urrats unilateralak Euskal Herriaren zerbitzura jarri behar dira.

13. Urtetan askok uste izan dugu borroka armatua amaitu osteko garai politikoa egokia izan beharko zatekeela subiraniaren inguruko akordio interklasista bat egiteko. Zoritxarrez, hau ez da gertatu. Iraganaren errelatoa egiteko lehiaren eta nazionalismoaren baitan bozen hegemonia lortzeko borrokaren ondorioz dinamika ez konbergenteak nagusitzen dira, ez lankidetzazkoak. Abertzaleok gure handicapik nagusia gainditzeke daukagu: gutxieneko helburu partekatuen inguruan bat egiteko gaitasun eza, hauteskunde espazioen lehia zilegitik haratago. Horregatik, urrats jakin batzuk egiteko politika instituzionala mugatua dela jakinik, ELAk uste du aldi hau garai emankorra izan behar dela helburu horretarantz mobilizazio sozial handi bat egituratzeko.
14. Hain zuzen mobilizazioari dagokionez prozesu katalana erreferentzia garrantzitsua dugu. Bi nazioen arteko desberdintasunak alde batera utzita, kontua da Katalunian asmatu egin dutela mobilizazio sozial bikaina antolatzen; beronen unerik gailenena, iazko irailaren 11n ospatu zen Diada. Dinamika hau –piskanaka, urtetako ibilbidean eratu izan dena– etekin nabariak ari da ematen, eta statu quo-arekin bat eginda zeuden elite batzuren posizioa zaildu egin du, azaroaren 9rako deitu den kontsultari buruz. Bestalde, gure ustez, irailaren 18an erreferenduma bozkatuko duen Eskoziaren kasuan bezala, indar subiranistek klase xeheen interes eta helburuekin bat egiteko duten gaitasuna gakoa izango da gizartearen burujabetza betearen aldarrikapenerako babesik zabalena lortzearren. Bestela esanda, politika neoliberalak zama bat da gehiengo izatera iritsi nahi duen batze sozial batentzat.
15. Espainiak ez dauka, esaterako, Britainia Handiak erakutsi duen heldutasun politiko eta demokratikoa, bere errealitate plurinazionalaren aitortzari dagokionez. Bestalde, parlamentuak ez dira aski sakoneko aldaketa politiko eta sozialak eragiteko; hau agerian geratu zen joan den hamarkadan Kataluniako Estatutarekin eta EAerako Estatutu Politiko Berriaren proposamenarekin. Horregatik, hau gizartearen eta herritarren unea izan behar da. Hain zuzen, *Gure Esku Dago* izenarekin abiatu den dinamika ilusioa ematen duen erreferentzia, beharrezko ekimena dugu subiraniarantz urrats zehatzagoak ematen hasteko. Dinamika modu honekin asmatuz gero, Espainia uniformearen diskurtso mindua –gero eta etsaiagoa– aukera bihurtu behar dugu geure kontzientzia politikoa indartzeko eta indarrak batzeko estrategia berriak ahalbidetzeko, masa herritarren artean prozesu nazionalerako babes gero eta handiagoa bilduz.
16. ELAk dei egiten die bere afiliatuei Aberri Eguneko jaia dela eta gure herrian ospatuko diren ekitaldi publiko eta pluraletan parte har dezaten, eta *Gure Esku Dago* ekimenean engaia daitezen, bera sustatuz eta ekainaren 8an izango den giza-katean parte hartuz, senide, adiskide eta lankideekin. "*Nazioa gara, erabakitze eskubidea dugu, herritarren garaia da*". Gora Euskal Herria Askatuta!

ELAko Nazio Batzordea

Bilbo, 2014ko apirilaren 14<sup>a</sup>

